

# BERRIGARA

zenbakia

JARDUN Elkartea, Bergara

1997, martxoak 7

CONDUCTOR  
ARABA

## Martxoak 8

Hau badoa aurrera



Fiat Marea zure esku 2.396.000 pta.tik aurrera.  
Diesel bertsioetan, %7,5eko finantziazioa.  
75, 100 eta 124 CVko Turbo Diesel motoreak.

**FIAT**

**AUTOBEREZI**

Antigua, 10 Antzuola



*Alfa Romeo*



# VENTANAS SAN MIGUEL

Ibargarai, 4 Tl. 76 12 21 Bergara  
Iturrioz, 24 Tl. 79 78 10 Arrasate

*Zure ongizatea  
babesteko gande*



**VENTANAS  
SAN MIGUEL**

**SALDUOSTEKO ZERBITZUA (URTEBETE DOAN).**

**NEURRIRA EGINDAKO LEIHOAK.**

**EREDU ETA MOTA GUZTIETAKOAK.**

**AHOLKULARITZA TEKNIKOA ETA KONPROMEZURIK GABEKO AURREKONTUA.**

**30 URTEKO ESPERIENTZIA ETA 100.000 BEZEROTIK GORA IZATEA DIRA GURE BERMEAK.**

## URKIOLA

jantzidendak

udaberriko moda

berria aurkezten dizue:

**Calvin Klein**  
jeans

**ANTONIO MIRO**



Bidekurutzeta, 42. Bergara. Telefonoa, 76 16 48.



## BERRIGARA

ERROTALDE JAUREGIA  
48570 Bergara  
976 03 97 • Faxa: 76 08 19

## Argitaratzailea:

ERROTALDE JAUREGIA

## Zuzendaria:

Agustín Azkarate

## Erredakzioa:

Agustín Mendibil

Agustín Elkorobereibar

## Maketazioa:

Agustín Iturbe

## Publizitatea:

Agustín Romero

## Argipidetzak:

Agustín Elortza

## Testuen zuzenketak:

Agustín Plazaola

Agustín Laskurain

Agustín Labaien

## Erredakzio kontseilua:

Agustín Elortza

Agustín Angel Elkorobereibar

Agustín Labaien

## Komikiak:

Agustín Rodríguez

Agustín Ortega & Jon Alvarez

Agustín Ugaldes

Agustín Azkarate

## Benaketa:

Agustín Arangorri taldea

## Trada:

Agustín ale.

## Aprimategia:

Agustín Koop. Elk. (Zubillaga. Oñati)

## Copyright:

BERRIGARA

## Lage gordailua:

Agustín 50/91

## ISSN:

Agustín 000-6599


BERRIGARA ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako irazpenen eta iritzien erantzunkizunik.



Aldizkari honek Bergarako Udalaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzaren Kultura sailaren laguntza jaso du

## Z E B E R R I D A ?

## JOSEBA AIZPURUA

### Udaleko teknikaria

**- Zelako feria izango da aurten Erramu Zapatua, martxoaren 22an?**

- Egitaraua aurreko urteetako antzerakoa: ganadu feria, herri kirole-tako probak, salmenta postuak, bertsolariak, Jardunen Txorimalo Lehiaketa... Nobedade bezala, aurten idi proben erakustaldia izango da Beheko Estazioan. Aurtengo ferrian, guztira, 150 postutik gora izango dira Fraisko-zurir, Simon Arrietan, Seminarioan, Domingo Iralan eta Ibargarain. Aurrekontua ia 4 milioi pezeta-koa da.

**- San Martineko ferriarekin konparatuz, indarra galdu al du Erramu Zapatuak?**

- Ez dut uste. Erramu Zapatukoa tradizio handiko feria izan da Berga-



ran. Orain 100 bat urte inguruko ferriarik ospetsuenetakoa zen, garai batean indarra galdu zuen baina orain berriz ere indartsu dago. Beharbada Bergarako jendearen artean San Martinekoa popularragoa izango da baina baserri munduko jendearen artean, berriz, entitate gehiago dauka Erramu Zapatukoak.

**“Aurten Erramu Zapatuko ferriako nobedadea idi proben erakustaldia izango da”**

## I T U R R I O N E T I K

### EAJk Aberri Eguna ospatuko du Bergaran martxoaren 30ean

EAJ/PNVren aurtengo Aberri Eguna Bergaran ospatuko da, martxoaren 30ean. Egun horretan, eguerdian, ekitaldi politiko bat izango da Udal Pilotalekuan eta jarraian herri bazkaria egingo da bertan. Ziurrenik Jose Antonio Ardanza Lehendakaria, Xabier Arzalluz EBBko presidentea eta Joseba Egibar GBBko presidentea Bergaran izango dira egun horretan. Orain gutxira arte EAJk Donostian ospatu izan du Aberri Eguna. Azken edizioak, berriz, Azpeitian, Irunen eta Donibanen izan dira. Ohikoa denez, egunari amaiera emateko, arratsaldean beste ekitaldi politiko bat izango da Bilboko Erakusketa Azokan.

E S A N  
D U T E

“Gizarte belgiarrak solidaritate kultura sendoa dauka eta asko eta asko dira, laguntza politikoa eskeintzeaz gain, euren izaera bero eta zabalarekin giza laguntza eskaintzen digutenak”

**JOSE LUIS ELKORO**  
HBko Mahai Nazionaleko kidea  
EGIN

“Gure herrian, Bergaran, eta bai ingurukoetan, balore arkitektoniko haundiko etxe, plaza, jauregi eta antzeko ugari da, baina bertakook ez ditugu asko apreziatzen, hain gaude ohituta egunerok ikusten. Kanpotarrek, ordea, interes haundiarekin begiratzen dituzte. Dena den, ez ditut bakarrik Bergarako miniaturak egiten. Herri batera noanean galdetu egiten diet bertakoei, eraikuntza interesgarrienak zeintzuk diren jakiteko. Ez dira beti jauregiak eta elizak. Esaterako, Elorrion iturri baten miniatura egin dut, leienda polit bat dauka eta”

**PILI ARIN**  
Irakaslea eta eskulanzalea  
EGIN





### UN DIA INOLVIDABLE

Eguakitza: 22:30.  
Zapatua: 17:00, 19:30, 22:30.  
Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.  
Astelehena: 19:30  
(Ikuslearen eguna).



### EL FUNERAL

Eguena: 20:00 (Zine-kluba).

## Zinea

▼▼ **Michael Hoffmanek** zuzendutako filme honetan, dibortziatuta dauden arkitekto batek (**Michelle Pfeiffer**) eta egunkari bateko kolumnista ospetsu batek (**George Clooney**) euren seme-alaben ikastetxearen atarian elkar ezagutuko dute. Egun batez, telefono mugikorren bitartez izango dira harremanetan eta berehala ohartuko dira elkarrekin maiteminduta daudela, egun ahaztezin bat igaroz...

▼▼ **Abel Ferrara** zuzendariaren (*Teniente corrupto*) filme honek kritikaren oniritzia jaso zuen iazko Veneciako jaialdian. *Tempio* familiako buruetako bat hil ondoren, familia honen gorabeherak eta beste talde mafiosoekin zituzten harremanak azalduko zaizkigu...  
**Christopher Walken** edo **Chris Penn** aktoreekin.

▼▼ **Hilario Azkargorta** argazkilari bergararraren erakusketa ikusgai dago egunotan Nahikari tabernan. Hilariok goma bikromatatu izeneko teknikaz landutako 21 argazki erakusten ditu bere lehendabiziko erakusketan. Definizio gutxikoak, erretratuak dira gehienak. Hilarioen lan bitxiak ikusteko aukera ezinhobea.

## Deiak

▼ **Jam aretoa.** Zapatuan, martxoak 8, *Bestias*, *Pussycats* eta *Cherry-bombs* taldeen kontzertua gaueko 10etan.

Ostegunean, hilak 13, *Dantzut* taldearekin *jam-session* saioa. Gaueko 9etan. Sarrera doanekoa.

Ostiralean, hilak 14, *Jack Daniels* jaia gaueko 12etan. Sarrera doan.

▼ **Euskal Herrian Euskaraz** elkartearen jaia zapatuan, hilak 15, Jam aretoan. Arratsaldeko 7etatik aurrera EHEk atera duen "EHk izan behar du euskalduna eta librea" diskaren aurkezpena. Stronk J.A.S., Niko Etxart, Orioko gangsterrek, Eskixu, Pi L T, Balerdi Balerdi, Deabruak Teilatueta, Morau eta Latzen taldeekin.

## Ogia


▼ **Domeka 9:** Mizpildi.

## FARMAZIAK

- ▼ **Eguakitza 7:** Mozos.
- ▼ **Zapatua 8:** Camacho.
- ▼ **Domeka 9:** Camacho.
- ▼ **Astelehena 10:** Puy.
- ▼ **Martitzena 11:** Guallar.
- ▼ **Eguaztena 12:** Estella.
- ▼ **Eguena 13:** Mozos.

**OILAGORRA**  
**TABERNA**  
Barrenkale, 21 BERGARA

**ANTIA**  
HARATEGIA URDAITEGIA  
*Txahal, idi, txerri, bildots,*  
*untxi eta baserriko oilaskoak.*  
Matxiategi ☎ 76 15 09



Miguel  
Gimbert  
Hernan

AROTZEGIA / EBANISTERIA  
Zokalo, ate, tarima eta armairuen  
kolokazioa eta  
era guztietako arotzeria-lanak  
Orain ARETXABALETAN,  
Basabe Polig. A-2-5 TI/F 79 15 71



# Eskulan erakusketa

## Jarduneko emakume taldekoen lanak Kultur Etxean

**Eguastenean** zabaldu zen Kultur Etxean Jarduneko emakume taldeak antolatutako eskulan erakusketa. Martxoaren 12ra arte Jarduneko eskulan ikastaroan ari diren emakumeek azkenaldian egindako lanak izango dira ikusgai Errotalde jauregian.

Eskulan ikastaroa orain dela hiru urte jarri zen martxan eta, ordutik, Arte Ederretan lizentziatutako Dorleta Mendibil ari da klaseak ematen. Aurtengo ikasturtean 24 emakume ari dira, bi taldetan banatuta: martitzen eta eguernetan batzuk eta eguasten eta eguakitzetan besteak.

Klaseak, urritik maiatzera bitartean, ordu t'erdikoak dira, eta Dorletak azaltzen digunez, emakumeek in-teresa handia azaltzen dute; *"artista batzuk dira eta gainera lanerako gogo handiz etortzen dira. Oso gauza politak egin dituzte erakusketarako"*. Martxoaren 8a emakumearen eguna dela eta, emakume taldeak fetxa hauetan egin nahi izan du beren lehen erakusketa. Erakusketa apaingarri mordo bat ikusi ahal izango dira: figurak, pertxeroak, errebisteroak, lanparak, aulkiak...



Jarduneko antolatutako eskulan ikastaroan parte hartu duten emakume taldeen lanak daude ikusgai.

### Teknika ezberdinak

Ikastaroan zehar teknika ezberdinak landu dituzte emakumeek: egur pintaketa, metala, birziklaia, bandala, eztainua, urreflexak... Dorletaren ustez, *"askotan ez dago gauza berriak erosi beharrik etxea apaintzeko. Ikastaro honetan, adibidez gauza zahar batzuk*

*berreskuratu dituzte emakumeek eta horrek frogatzen du lan piska bat eginaz apaingarri politak lor daitezkeela: etxeko lanpara zaharrak, koardroetako markoak, eta abar"*.

Ikastaroan parte hartu duten emakume gehienak helduak dira. *"Baina denetik dago, gazte batzuk ere badabiltza. Batik bat*

*denbora libre aprobe-tzatzearen eta eskulana egitea asko gustatzen zaielako etortzen dira. Eta taldean oso giro ona dagoelako ere bai"* esaten digu Dorletak.

Kultur Etxeko erakustokia astebarruan 6etatik 9etara eta zapatu eta jaiegunetan 12etatik ordu bietara eta, arratsaldean, 6etatik 8etara izango da zabalik.

**Erakusketa eguastenera arte izango da zabalik eta figurak, pertxeroak, errebisteroak, lanparak, aulkiak eta abar izango dira ikusgai.**

# MUJIK

UNIFE KOOPERATIBAKO KIDE  
FERRETERIA

BERGARAKO ENPRESA ETA HERRITARREN ZERBITZURA

Bidekurutzeta, 8 ☎ 76 28 67 BERGARA

# TOKI-ONA

Bodegoia-taberna

Eguneroko janariak / Txitxizotzak  
Kazolatxoak / Txabierroak

Matxiategi, 1 Tfnoak: 76 39 53



## El Diario Vasco eta El Mundoko irakurlegoari

Oraintxe ere hementxe gatoz, Euskal Herriko preso politikoen buruz hitzegiterakoan ematen den informazioa manipulatu eta ohizko bihurtzen ari dela salatzen. 85. urtean gertatu zen bezala, 15 preso politiko Langraitzera (Gasteizera) trasladatuak izan ziren (euren artean Iñaki) eta prentsan, 15 preso politiko damutu ekarri zituztela atera zen, handik gutxira hau gezurra zela eta gobernuak egindako azpizjoko bat zela frogatu zelarik.

Orain, 97. urtean, berriro bueltatu gara, konkretuko otsailak 8an, Diario Vasco eta El Mundo-k argitaratu zuten bost euskal preso politiko (bertan Iñaki) Euskal Herrira trasladatuak izango zirela atera zuten informazio manipulatu salatzen. Hau dela eta, behartuta aurkitzen gara gauza batzuk argitzera:

1.- Diario Vasco-n Iñakiren atxilotze data falsua da.

2.- Diario Vasco-n esaten zuten, Iñaki informatikako maixua zela gartzelan. Hau gezur hutsa da!! Iñakik "Informatika Ingenieritza" egiten ari da eta Orenseko gartzelan ordenadoreak daude, gartzelan baimena eman zioten bere ikasketak praktikak ordenadore hauekin egiteko, baina inolako momentuan ez zuen maixu lanik egin.

3.- Gezurra da, bi egunkari hauetan jartzen duten bezala, Iñakik ez zuela euskal preso politikoei egiten zuten protesta ekintzetan parte hartzen. Iñakik 17 urte daramatza salatzen, gose grabak eginaz, bisita greba eginaz eta abar luze batekin, euskal presoak jasaten ari diren tratu lotsagarriak, dispertsioa, txantaiak eta abar.

Urriak 1ean gose greba mugagabe bati eman zioten hasiera bere txandakoek, euskal presoak Euskal Herritarzearen alde, eta Iñakik ez zuen parte hartu, 96an egin zuen 2 asteko gose graba batean 14 kilo galdu zituelako eta oso ahulduta gelditu zen, gose greba honi hasiera ez ematea eskatu genion bere bizitzagatik beldur

ginelako. Ulertzekoa, jakinik Espainiako gartzelatan sakabanaturik egon dela 17 urte honetan, eta gose graba askotan parte hartu behar izan duela euren giza eskubideak errespetatuak izan ditzeten.

4.- Gezurra da ere, 2 egunkari hauek esaten dutenean, Iñakik ez duela harremanik bere kasua lehenengo egunetik eramaten duten abokatuekin, zeren bai guk eta baita Iñakik ere sarritan eta maiztasun handiz egoten gara abokatu hauekin eta orain gehiago 95. urtetik kalean egon behar lukeela jakinik.

Azkenez esan, Iñakik 17 urte bete dituela Espainiako gartzelatan sakabanatuta, eta kondena-ren 3/4ak beteta dauzka, horregatik 95. urtetik kalean egon behar lukeela ikusirik Iñaki ez zen Langraitzeko (gasteiz) espetxean egon behar etxean baizik. Euskal preso politiko guztiak Euskal Herrira orain!!

### IBABE FAMILIA

### Estanpak

San Martinen Estanpa bergarar guztiontzat oso ikuskizun polita izan zen, baina bere atzean gordetzen ziren gauza guztiak ez dira hain politak izan, batez ere bertan parte hartu zuten kultur taldeentzat.

Adibidez lehenengo injustizia zera izan zen, bertan lortutako diru guztia Musika Eskolarako izan zela, hau ez da bidezkoa zeren eta Bergaran badaude kultur talde asko, honen aldean diru behar handia dutenak, eta hauek ez dute ezer jaso beraiek izan arren lan gehien hartu zutenak.

Gaizki egon zen beste gauza bat sarreraren arazoa izan zen. Sarrerak 2.000 pta. balio zuen baina ez zuten kontutan hartu Bergaran gazte jendeari, jubilatuei eta langabetuei ere gustatzen zaizkiela honelako ikuskizunak, baina beraien poltsikoetarako oso garestiak ziren sarrerak.

Azkenik salatzen da baita ere sarrerak saltzerakoan egon zen organizazioa, lotsagarria izan baitzen, itxoiten hasieran zegoen jendeari tokia aukeratzeko zuten zieten eta ez zuten kontutan hartu jende guztiak prezio bera ordaindu zuela eta hortaz jende guztiak aukera berdina zuela toki on bat izateko.

Ikuskizuna alde honetatik begiraturata lotsagarria izango litzateke.

A. E. (NAN: 15.399.837)

### Bergarako Udaleri


Zenbat aldiz egon gara parke batean jolasten, jaten, hitzeginen lagun artean... eta zenbat zikindu dugu nahigabe parketako eserlekuaren inguruak, piper azalaz, plastikozko poltsez, txikiez...

Bergaran badira pare bat parke, bat oso ondo zainduta eta bestea zaindu gabe. Uste dugu norberak zaindu behar duela ingurugiroa baimendian, bai kalean baina Udaletxearen betebeharra da herriko parke guztiak eta kaleak garbi mantentzea.

Leku batzuetan badira zakarrontzi ugari, beste batzutan aldiz ez dago bat ere ez. Non? Santa Anako parkean adibidez. Hemen denbora dexente pasatzen dugu astean zehar eta gustuko dugu arratsaldeak igarotzea bertan eta hau dela eta Santa Anako parkean zakarrontzi pare bat ipintzeko eskatzen dugu.

O. A. (NAN: 72.446.057)

## Tiira biraka



## ALEX UGALDE





**Musika Eskolaren zozketa**

Musika Eskolaren Gabonetako zozketan saritutako zenbakiaren jabea agertu ez denez, eta hilebeteko epea pasatu denez, ordeko zenbakiari egokitu zaio saria. Beraz, 01226 zenbakiarentzat izango da saria.

**Txorimalo lehiaketa**

Martxoaren 19an amaituko da Jarduneko Gazte Taldeak Erramu Zapaturako (martxoak 22) antolatu duen txorimalo lehiaketara aurkezteko epea. Izena ematerako orduan egilearen izena edo taldearen erantzulearena adierazi behar da eta edozein material erabili ahal izango da, baina txorimalo bakoitzak ardatz bat eraman beharko du, lurlean tinko egon dadin. Izen-ematea Gartzela Zaharrean egin behar da.

**HILDAKOAK**

**Maria Urriategi Maiztegi**  
Martxoak 1, 82 urte.  
**Bittori Larrañaga Gallastegi**  
Martxoak 5, 73 urte.

**JAIOTAKOAK**

**Eroxe Etxabarri Alberdi**  
Otsailak 28.  
**Mikel Edroso Rueda**  
Otsailak 28.

**Azterketa geoteknikoa egin dute Agorrosin futbol zelaietan**

**Labein** ingenieritza enpresako langileak Agorrosin izan dira asteazkenean, futbol zelaiaren azpialdearen ikerketa geologiko-geoteknikoa egiteko. Labeineko ingeniarioak elektrizitate korrontea erabili dute futbol zelaiaren azpian ze motatako haitz edo lur dagoen jakiteko eta mehategiko galeriak ze egoeratan dauden jakiteko. Antza denez, Agorrosingo presa behera etorri zenetik ura filtratzen da futbol zelai azpian dagoen mehategiaren eta horren eraginez agertu ziren zuloak futbol zelaietan orain dela hilabete inguru.

Ikerketa geoteknikoaren emaitzak jakiteko hilabete pasa itxoin beharko da eta erantzuna jakin eta gero erabakiko da aurrerantzean zer egin. Labein enpresak egingo duen ikerketaren kostua 1.654.160 pezetakoa da eta Udalak egingo dio aurre.

**Futbol zelia saldu?**

Baliteke futbol zelaietan agertutako zuloa tapatzearekin nahikoa izatea, baina konponketa sakon eta garestiagoa egin behar izatea ere izan liteke. Horrela balitz, arazo ga-



Teknikoak Agorrosin ikerketa geoteknikoa egiten izan dira.

rantzitsu bati aurre egin behar izango lioke Bergara Kirol Elkarteak, Agorrosingo futbol zelaiaren jabeak. Jakina da BKE ekonomikoki larri samar dabilela eta futbol zelaiak konpontzeko ez luke dirurik izango. Irtenbidea instituzioei laguntza eskatzea edo bestela futbol zelaiak Udalarari saltzea izango litzateke.

Beste irteera bat belar artifiziala jartzea izango litzateke. Gipuzkoako Futbol Federazioak horrelako lanak egiteko dirulaguntza ematen ei du, eta beste instituzio batzuetatik ere jaso ahal izango luke BKEk.

Kontuak kontu, arazoa larrien sufritzen dute-

nak futbolariak eta zalegoa dira, eta baita BKEko zuzendaritza ere. Azken partidua Ipintzan jokatu behar izan dituzte eta horrek eragina izan du diru kontuetan, Agorrosin diru gehiago lortzen baitzen sarreren bidez.

Bestalde, BKEk Realaren eta Eibarren arteko partidua iragarri du Maiztaren Lehenerako Andres Alzelairi omenaldia eskaintzeko. BKEk partidua Agorrosin jokatzeko esperantzak ditu.

Ziur jokatu ez dena, Realak Aste Santuan antolatzen duen jubencil mailako txapelketako partidua izango da, Agorrosin ezin izango baita erabili.

ARRANO



**Taberna**

Kruz Gallastegi BERGARA



**ETXEBERRIA**

**ERLOJUTEGIA-BITXITEGIA**

Bidekurutzeta, 16 BERGARA ☎ 76 23 94 - 76 12 65



**Korrika 10**

Korrikaren 10. edizioa datorren astelehenean, hilak 14, helduko da Bergarara. Antzuolatik etorriko da eta herria zeharkatu ondoren Arrasateko bidea hartuko du. Korrika Bergararik pasatzen dela eta, hainbat ekitaldi antolatuko dira bezperan eta astelehenean bertan. Domekan, bertsolariak, trikitalariak, kantariak eta txiste kontalariak izango dira San Martin plazan 19:00etan; astelehenean, berriz, 15:15etan pasatuko da Korrika Bergararik eta ondoren, 16:00etan, umeentzako jolasak antolatuko dira San Martin plazan.

**Euskara irakaslea**

Apiriletik ekainera bitartean, ordezkapena egiteko euskara irakaslea hartu nahi du Akulu AEK euskaltegiak. Ineteresa dutenek euskaltegitik bertatik pasatu edo 76 05 18 telefonora deitu dezakete.

**Tenis klaseak**

14 urtetik gorakoentzat tenis klaseak antolatuko dira martxoaren 10, 12, 14 17, 19 eta 21ean, arrasaldeko 7:15etatik aurrera Kiroldegian. Irakasela Jorge Aranes izango da. Interesa dutenek, ikastaro egunean raketa eta guzti bertara agertzea besterik ez dute.

**Bideberriko rock kontzertuak**

Pazkuetan Bideberriko rock kontzertuetan izango diren taldeak aukeratzeko bilera egingo da datorren martitzenean, hilak 11, arratsaldeko 7etan Kultur Etxean. Interesa duten guztiei asteartean bilerara agertzeko gonbitea egiten zaie.



Jubilatuen egoitzan hainbat obra egingo dira eguneko zentroa jartzeko.

## Eguneko zentroaren obrak Aste Santu ostean hasiko dira

*Gaisoak egunean zehar zaintzeko zerbitzua izango da*

Jubilatuen egoitzan kokatuko den eguneko zentroaren obrak egiteko baldintza pleguak kaleratu dira dagoeneko eta eskaerak jaso ondoren laister adjudikatuko dira. Obrak Aste Santu ostean hasiko dira seguruen eta uztaileko edo, martxan jarriko da. Obrek 6 milioi pezeta inguruko aurrekontua dute.

Eguneko zentroa gaur egun jubilatuen egoitzako telebista gela, elbarrituentzako komuna eta emakumeen ilepaindegia dauden tokian jarriko da. Horrez gain, erretzaille ez diren gelaren zati bat ere hartuko du. Oraingo hall-ari ere zati bat kenduko zaio eta horren ordez, pasillo bat geratuko da, gaur egungoa baino estuagoa. Bestalde, jubilatuen egoitzarako sarrera na-

gusia ere zerbait aldatuko da eta eguneko zentroak bi sarrera izango ditu: bata, egoitzara sartzekoa eta, bestea, orain emakumeen ilepaindegia dagoen leihotako batetik egingo dena. Orain biltegia dagoen tokian ilepaindegia mistoa jarriko da eta biltegia, berriz, gaur egun gizonen ilepaindegia eta mantentimendu tailerra dauden tokian.

Obrak egin bitartean eguneko zentroko zerbitzua adjudikatzeko tramiteak egingo dira. Bertan bizaipairu lagunek egingo dute lan eta 10-15 gaisorentzako lekua izango da. Eguneko zentroa bere kabuz bizitzeko gauza ez diren eta besteren baten laguntza behar duten gaisoak egunean zehar zaintzeko zerbitzua izango da.

# Sugoi

**ERLOJUAK, ARTIKULO  
ELEKTRONIKOAK,  
KALKULADORAK...**

Irizar pasealekua, 2 behea  
☎ 76 59 54 BERGARA

## Deco-Textil ZANGITU

**Etterako lentzeria  
Alfonbra nazionalak eta ekialdekoak  
Bisiloak, tapizak, etab.**

**Herri lagunak 3 eta 5 ☎ 76 08 69**

# Biko

BOKATEGIA

Simon Arrieta plaza 2A behea ezkerrean. Tf. 76 71 19



**Jardunaldi pedagogikoak**




San Martin ikastetxe publikoak antolatu dituen jardunaldi pedagogikoek oso harrera ona izan dute orain arte, azken bi eguastenetako

hitzaldietan jende ugari izan baita Kultur Etxean. Eguasten honetan, Iosu Sierra Hezkuntza Saileko teknikaria (argazkian) eleaniztasuna eta eredu linguistikoei buruz berbetan izan da. Jardunaldiei amaiera emateko, berriz, *“Lebenengo harremanak eta nortasunaren oinarritzko egituren garapena”* gaiari buruz mintzatu da Rafael Cristobal psikoanalista datorren eguastenean arratsaldeko 7etan Kultur Etxean.

**Irala kalea itxura aldatzen**

Peñako etxean joango den hotela eta tabernako obrak amaitzeaz daukela, Irala kalea itxura aldatzen ari da gutxika-gutxika. Epe laburrera, Sagarepeko patioa eta Gasparreneko garaieja bota eta Zabalaneko lorategiari zatia kenduko diote. Legealdia bukatu baino lehen Euxebio II tabernan hasi eta Kruz Gallastegi kaleraño Ira-

la kalea zabaldu eta abenida antzeko bat sortuko da. Victoriano Gallastegi alkateak esan digunez, *“herritarren artean eztabaida sortu nahi da, eta ideia lehiaketa plazaratuko dugu kale peatonala egin ala ez, Irizar jauregiari zati bat kendu ala ez eta abar erabakitzeke”*. Laister herriko kale dotoreenetakoa izango da Irala.



**Langabetuentzat ikastaroa**

“Automatista de procesos industriales electricos” ikastaroa antolatu du Bergarako Udalak INEMen laguntzarekin. Lanbide Heziketa I. eta II. mailako prestakuntza dutenen 18 urtetik gorako langabetuei zuzenduta dago eta 437 ordu emango dira. Apirilaren 14an hasi eta urriaren 28an bukatuko da eta arratsaldetan 14:30etatik 18:30etara bitartean emango da Miguel Altuna institutuan. Ikasle kopurua 15 lagunekoa da. Informazio gehiago Udaleko enplegu zerbitzuan.

**Mauleko ikastolari laguntza**

Mauleko ikastola egoitza berria eraikitzen ari da Sohutako herrian eta deia egin du 600.000 libera lortu ahal izateko. Martxo bukaerarako 200 libera edo 4.500 pezetako 3.000 bono jasotzea da helburua. Gaur egun, eraikuntza prefabrikatu eta erdi hondatu batean ari dira umeak klaseak jasotzen. Mauleko ikastolari laguntza eman nahi izanez gero, Gipuzkoako Kutzako kontu zenbaki honetan sartu daiteke dirua: 2101 0001 1 8 0010438877.

**Ibilgailuen gaineko zerga**

Aurtengo Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen Gaineko Zergaren errolda onartu du Udal Gobernu Batzordeak eta Udaletxeko kontuhartzaitetzan erakutsiko da 15 egunez. Epe horretan errolda horren aurka errekurtsoak eta alegazioak jarri ahal izango dira eta bat bera ere aurkeztuko ez balitz, behin-betiko onartuko.

**Bolintx**  
OKINDEGIA  
domeketan ere zabalik

Zurradero, 2 behea Telefonoa 76.01.26

**Goierri**

**AUTOGIDARIEN ESKOLA**

Fraiskozuri Plaza, 5 BERGARA ☎ 76 41 50



# Esteban Muruamendiaraz

## SINTRAGIko idazkari teknikoa

**39 urte ditu eta gaztetatik ibili da harantz eta honantz kamioiarekin lanean. Orain dela lau urte, ordea, kamioia laga eta Sintragin, Gipuzkoako garraiolari autonomoen sindikatoan, lanean hasi zen. Garraiolarien greba deskonbokatuz zela bi aste pasatu direnean, kamioilarien arazoaren inguruan berba egin dugu.**

**- Garraiolarien artean Fedatrans minoritarioa dela entzun da.**

- Eta zela dakite minoritarioak garena, hauteskunderik egin ez bada? Fedatrans-ek estatu osoan zehar sinadurak bildu zituen grebaren aurretik Madrilén euren ordezkari izateko eta 50.000 firma jasoz ziren. Zerrenda haundiena geuk aurkeztu genuen. Bestalde, sindikatu baten indarra kalean neurtu behar da, eta kamioilari autonomo gehienak lana laga eta kalera irten dira.

**- Sintragi Fedatrans barruan dago?**

- Gipuzkoako garraiolari autonomoen sindikatua da Sintragi eta 900 afiliatu inguru ditu. Bizkaiko Sintrabi da eta Arabakoa, berriz, Sintraraba. Euskal Autonomia Elkartearen hirurok bat egin eta Hiru izeneko sindikatu biltzen gara eta Fedatrans-ek estatu osoko elkarte autonomoko sindikatuak biltzen ditu. Sindikatuaren transportista autonomoak bakarrik biltzen dira.

**- Zeintzuk izan dira zuen aldarrikapen nagusiak?**

- Gasoilaren inguruan berba asko egin da, baina garrantzitsuena sektorearen berregituraketa da. Gaur egun eskaintza eta eskaeraren arteko desoreka haundia dago. Kamioi gehiegi eta lan gutxi dago. Ondorioz, konpetentzia haundia denez, garraiolariak prezioak jaitsi beharra dute; gasoilaren prezioak, oster, gora egin du. Aurrejubilizioetarako laguntzak ematea, garraiolari izateko lizentzia berriak ez ematea eta sartzen diren berriak beste batek lagutako lizentzia hartuz sartzea eskatzen dugu.

**- Eta zein izan da gobernuaren jarrera horren inguruan?**

- Gobernuak esaten du garraiolariari aurrejubilizioa ematen badie, atzetik autonomo guztiak etorriko zaizkiela gauza bera eskatzen. Baina, lan guztiak ez dira berdinak eta 64 urterekin kamioiarekin errepidean ibiltzea oso nekeza eta arriskutsua da, kamioilariarentzat ezezik, gidari guztiarentzat ere.

**- Greban bi aste egon eta gero, ez ei duzue Gobernuaren aldetik konpromezu idatzirik lortu.**

- Egia da, baina hori ez zen garrantzitsuena,



"Garrantzitsuena sektorearen berregituraketa da".

gure helburua ez zen Madriletik gobernuak idatzitako paper bat ekartzea, bagenekielako ez zituztela gure eskaera guztiak onartuko. Inportanteena da sektoreak erakutsi duen batasuna, guztiak agertu garena administrazioaren kontra. Estatuko 55 asoziazio elkartu gara. Fedatrans-etik kanpo zeuden beste federazio batzuetako garraiolariak ere lanuzteak egin dituzte, nahiz eta beren ordezkariak grebaren kontra azaldu. Transportistak irabazten irten gara.

**- Baina gobernuak konpromezu batzuk hartuko zituen, ezta?**

- Bai, aurrejubilizioak bultzatzeko lehen urtean 7.000 milioi emateko konpromezua hartu du, lau urtean 5.000 garraiolari erretiratu daitezela. Bestalde, garantiak eman dizkigu, sektorean kamioilari gehiago ez sartzeko eta gaisotasun profesionalak errekonozitu ditu.

**- Aurrerantzean zer?**

- Zapatu honetan greba komitea bilduko da Madrilén. Helburua, grebaren izpirituari eta lortu den batasunari eustea da. Greba deskonbokatuz den moduan, urte bukaeran beste bat konbokatzeke gertu egon gaitezke.

**"Inportanteena da sektoreak erakutsi duen batasuna, guztiak agertu garena administrazioaren kontra. Estatuko 55 asoziazio elkartu gara"**



## Teknologia

## Telebista digitala

**- Zer da telebista digitala?**

- Orain arte telebista seinalea era "zaharrea" kodetuta jasotzen genuen lurreko errepetidoreen bidez edota satelitetik. Orain kodetzeko era berri bat asmatu da: "digitala". Kode berri honen bidez lehen telebista kate bat bidaltzeko aukera zegoen lekuan orain hainbat kate sar daitezke eta gainera askoz irudi kalitate hobekin. Gainera, igorlea eta hartzailearen arteko komunikazioa bi aldetarako izan daiteke.

**- Baina satelitetik e dator.**

- Bai, lurreko errepetidoreen bidez ere egin zezaketen, baina denak aldatzea oso garestia da eta bere denbora behar du, telebista pribatuekin edota ETBrekin gertatutakoa kasu. Gainera lurreko sistema guztiak Estatuarena den Retevision erakundearenak dira. Sateliteen kasuan, daudenak aprobetxatu daitezke, merkeagoa da eta gobernuek ez dute zeresanik.

**- Zein da egon den polemikaren jatorria?**

- Gaur egungo telebista egiteko era diru-kopuru izugarriak darabiltzan negozioa da. Eta hor dugu bi talde borrokan, alde batetik Telefonicaren ingurukoak eta bestetik Prisa ingurukoak (Canal +, El Pais, e.a.). Espainiako Gobernuak oraintxe arte publikoa izan den Telefonica taldean oinarrituz talde bakar handi bat osatu nahi zuen, beti ere, bera tarteko. Horretarako,

**"Telebista digitalarekin kanal eskaintza haunditu eta irudien kalitatea hobetu egingo dira"**

Telebista digitalarekin kanal-eskaintza zabalagoa izango da.



**MIKEL USABIAGA**

(Teknologia berrietan aditua)

telebista ireki bat egin nahi duela adierazten du. Prisa taldekoek, berriz, bere bidetik jo zuten.

**- Badago diferentziarik euren artean?**

- Nire ustez bai. Begera, orain arte edozein telebista dekodetu dezake jasotzen duen seinalea, Canal Plus salbu. Kode-

tzeko era digitalarekin, telebista digitalarekin, seinalea kodetzeko eta dekodetzeko sistema pribatua bihurtu dute. Eta seinale hori ikusteko, ordaindu beharra dago, oraingo Canal Plusen antzekoa, baina dekodifikadorea telefonora engantxatuta, edozein bankutako kutxa automatikoaren antzera. Prisa orain arte Canal Pluserako erabili diren aparatuak aprobetxatu nahi zituen.

Baina Gobernuak ez zegoen prest sistema itxi hori onartzeko, azken finean aparatu horiek talde pribatu batenak dira. Gobernuak proposatzen duen aparatua edozein dandatan erosteko modukoa izango litzateke eta edozein taldek eginiko txartelak onartuko litzuke.

**- Eta futbolaren inguruko liskarra?**

- Telebistatik ematen den futbola negozio hutsa bihurtu da. Pentsa kobratze sistema hauekin, futbol partidu batek zelako dirutza eman dezakeen... Abantaila eta aseguru polita abentura garesti honetan hasten den edonorentzat. Bestalde kate berri hauentzat gastua egin dezaketen eta txartela duten sozioak lortzea da zailena, futbolaren aitakian etxean bertan gastatzeko aukera edukiz....



# LASAGABASTER

ZURE KONFIDANTZAKO DENDA.

Zerkaosteta, 1 eta 2 ARRASATE TI. 79 27 27 / 79 13 55



# Martxoak 8

## Berdintasunaren bidean



Emakumeek orain arte gizonen lanak izan direnak betetzen dituzte gero eta gehiago. ARTXIBOA

**Bihar zapatua, martxoak 8, Emakume Langileen Nazioarteko Eguna ospatuko da. Emakumeek fetxa hori euren eskubideak aldarrikatzeko erabili izan dute eta badirudi, lan munduan, berdintasunaren bidean, lehen ia debekaturik zituzten hainbat lekutara heldu direla gaur egun.**

**M**iguel Altuna institutuan mekaniko ikasketak burutu ondoren, Arantzazu Kortabarría antzuolar gaztea Antzuolako Seytra

lantegian ari da lanean. Orain dela gutxira arte gizonen lana izan dena egiten du bertan; "lantegian kotxeendako zinturoiak egiten ditugu eta injekto-

re makina batean lan egiten dut. Hamar langile eta enkargatua ari gara errelebo bakoitzean eta neure erreleboan neunaiz emakume bakarra,

**"Nire lanean gizonak izan dira nagusi. Baina oso harrera ona izan dut. Orain bi neska ari gara lan berean eta ez dago inolako tratu bereizketarik"**

**ARANTZAZU KORTABARRIA**



*baina beste neska bat ere badabil...". Arantzazuk eta bere lankideek hiru errelebotan egiten dute lan. Hiru astetan jarraian izaten dira lanean goiz, arratsalde eta gaueko erreleboak txandakatuz eta laugarren astean jai izaten dute. Arantzazuren ustetan, "gaur egun ez da hainbesteko lan fisikoa, batik bat daukagun makineriari esker. Baina bai, nabiko gogorra egiten da, sei egun lanean aste bakoitzean, ordu aldaketak..., hirugarren asterako jai hartzeko desiatzen egoten gara".*

Arantzazuk azaltzen digun moduan, "nire lanpostuan gizonak dira nagusi. Baina oso barrena ona izan dut lankideen partetik, neskek hartzeko ordua zela komentatzen zuten eta lan egiterako orduan ez dago inolako diferentziarik. Ez dago tratu bereizketarik, pertsonen moduan moldatzen gara eta balaxe izan behar da. Boka-dilo orduan ere edozer gauzari buruz berba egiten dugu, astebukaerako gertakizunak, bakoitzaren kontuak..., etabar".

### Berdintasuna

Esan bezala, Arantzazuk mekaniko ikasketak egin zituen Bergaran. "Hiru aukera nituen: administrari lana aspergarrira iruditzen zitzaidan; elektriko, berriz, ez nuen egin kalanbreak hartzea ez zaidalako gustatzen; nabiago nuen eskuekin egiten den lanean jardutea eta horregatik egin nuen mekanika. Amak ere esaten zidan beste zerbait egiteko, hura gizonen gauza zela baina... Klasean? Batzuetan adarra jotzen zidaten



Arantzazu Kortabarrak Seytran egiten du lan. Horrez gain, Bergarako nesken futbol taldean ari da.

*klaseko neska bakarra nintzelako, baina ez dut inoiz inolako arazorik izan".*

Arantzazuk ez dauka martxoaren 8a zelebratzeko ohiturarik; "ez dut zelebratzen, ez. Hala ere, ospatzen bada, zerbaitegatik izango da; oraindik ere diferentziak daudela esan nabiko du horrek. Egun hori ospatuko ez balitz, seinale ona...". Arantzazuren hitzetan, "lebedik badaude bereiztuta gizonenak eta emakumeenak diren lan batzuk. Emakumeak oraindik ez dira beldu hainbat lan betetzera, baina nik uste gustatzen bazaizu lan bat, gizonak egiten duten bezala egin dezakezula, ez da konplexurik izan behar".

Bere afizioen artean, Arantzazuk badu gizonen

esklusiboa izan den kirol baterako zaletasuna. Aurtan, Bergara K.E. nesken futbol taldean ari da jokatzen, defentsa postuan; "gustora ari naiz, betidanik gustatu izan zait futbola, baina orain hasi naiz serioago jolasten". Nesken artean futboleraiko afizioak nabarmen gora egin du azken urteotan; "bai, gero eta arrakastatsua da. Iaz sei talde izan ziren futbito txapelketan, aurtan zortzi talde... Nesken artean beti egon da hori baina ez dugu aukerarik izan futboleant egiteko. Ez dut uste gizonen kirola denik, ezta gutxiagorik ere, guri ere asko gustatzen zaigu futboleant egitea. Gogoia badago baina ez badizute aukerarik ematen, zaila da aurrera egitea...".

### Gasolineran

Osintxuko Muniola gasolindegian langile guztiak emakumeak dira. Lur Crespo enkargauetako baten hitzetan, "bakarrik neskek kontratatzea erabaki genuen neskek bezeroei tratu hobea eskeintzen dietelako, adeitsuago jokatzen dute eta horixe izan zen neskek hartzeko arrazoi bakarra". Muniolako langileetako bat Ane Ostolaza bergararra dugu. Anek administratibo ikasketak eginak ditu eta joan zen uztaitetik ari da Osintxun lanean; "aurretik haurrak zaintzen ibiltzen nintzen eta hona lanera etortzeko deitu zidaten. Hemen gidariei zerbitzen eta gasolindegiko denda atenditzen ibiltzen gara. Egia esan, hona datozenei basieran





Marife Muñozek mikrobus bat gidatzen du. Egutero 220 kilometro inguru betetzen ditu.

arraroa egiten zitzaien langile denak neskak izatea. Erdi brometan, ea feministak ote ginen galdetzen ziguten...". Anek zortzi ordu t'erdia egiten du lan egutero eta berak azaltzen digunez, "aste-bukaera izaten da txarrena. Ostiral arratsaldean askoz ere kotxe gehiago etortzen dira eta zapatu eta domeketan ere jendeak kotxea garbitzeko aprobetxatzen du. Orduan izaten da lan gebien, bestela ondo moldatzen gara. Hala ere, ez da bain lan gogorra. Eta ez dut uste hau gizonen lana denik, edozeinek berdin-berdin egin dezake". Dena den, Anek oraindik ere emakumeenganako diskriminazio pi-

ttin bat somatzen du lana topatzeko orduan; "zailtasun gehiago izaten ditugu normalean. Baina hemen behintzat jendea oso ondo portatzen da gurekin, segituan hasten da berbetan gurekin eta batzuetan adar jotze batzuk ere jasan behar izaten ditugu. Baina ez daukat inongo kexarik, ezta gutxiago ere. Gainera, jende asko ezagutzen da hemen". Lanarekin eta lan baldintzekin pozik dago Ane. Lanari dagokionez, 7 egunetan arratsaldean izaten dira lanean,

hurrengo lau egunetan jai izaten dute, ondoren 7 egunetan goizez lana eta jarraian beste hiru egun jai ematen diete. Aneri negua baino uda gogorragoa egiten zaio. "Sekulako beroa egiten du, joan zen udan nabikoa izerdi bota genuen hemen..." Neguan 10 eguneko oporrak izan ondoren, udan beste 15 egunetan jai izango du. Martxoaren 8a ospatzeko Lur Crespok zapatuan zerbait pikatzeko eramango dutela adierazi digu.

### Tradizio familiarra

Betidanik entzun izan dugu emakumeek gidatzen ez dakitela dioen esaldi hori. Marife Muñoz angiozartarraren ustetan, mito bat besterik ez da hori; "emakumeak normalean gizonak baino atontoago ibiltzen dira errepidean, baina zerbait gaizki egiten badugu, esaldi hori entzun behar...". Marife Autopullmans Araba bere aitaren enpresan ari da txoferlanetan. Aurretik administrari lanak egiten zituen

**"Oraindik ere emakumeek zailtasun gehiago izaten ditugu lana topatzeko orduan. Baina hemen jendea oso ondo portatzen da gurekin" ANE OSTOLAZA**



## “Mikrobusean emakume bat doala ikusten dutenean, nik uste gidariak oraindik hobeto portatzen direla” MARIFE MUÑOZ

bertan eta duela hiru urte erdi autobusa eta trailerra gidatzeko karneta ateratzen hasi zen. Egunero, batezbeste, 220 kilometro egiten ditu errepidean Marifek, tradizio familiarri eutsiz: aitari laguntzen hiru anai-arrebak ari dira txofer lanetan. Marifek haurrak ikastetxeetara edo langileak lanera eramaten ditu eta, horrez gain, astebukaeretan ere lan egitea tokatzen zaio askotan. “Hori da gauzarik txarrena, ez daukagula egun bat fijo libre. Beti dago zerbait. Astebukaeretan, adibidez, sagardotegira irteerak, bodegetara, kirol partiduetara, mendi irteerak... eta horrelakoak izaten ditugu. Aste osoan lanean ibiltzen gara. Hala ere, gustatzen zait lana, gustora ari naiz”. Gidatze karneta ateratzerakoan ez zuen nolana hiko maisua izan Marifek. Bere mutila Aitor Zabaleta kotxe gidaria da. “Baina ez pentsa, auto-eskolara joan aurretik ez nekien gidatzen. Behin izena eman eta gero bai, Aitorrek laguntzen zidan eta han ibiltzen ginen, Basalgon, Renault-8 zahar batekin praktikatzen. Baina ordurarte ez neukan gidatzeko obiturarik”. Eta orain, lanetik aparte, askotan gidatzea tokatzen zaio Mariferi; “borrela da, bai. Aitorrek lebertuta amaitzen du kotxe proba bakoitzaren ostean eta besteok izaten gara trailerra eraman eta bestelako laguntza lanetan”.

Marifek ez du sekula inolako arazorik izan errepidean: “jendea oso ondo portatzen da gurekin. Mikrobusean emakume bat doala ikusten du-

tenean, nik uste gidariak oraindik hobeto portatzen direla, oso atseginak izaten dira eta alde horretatik ez daukat kezarik, kontrakoa baizik”. Era berean, errepidean gero eta emakume-gidari gehiago ikusten direla kamioi eta autobusetan azaltzen digu: “lehengunean ere neska aleman bat ikusi nuen trailer haundi batekin San Juan inguruan. Atzerrian be-

men baino arruntagoa da hori. Horrelako trailer bat eramateak errespeto haundiagoa ematen dit, sekulako kargak eramaten dituztelako, ondo prestatuta egon behar duzu horretarako. Baina gure lana ere erantzunkizun haundikoa da, azken batean pertsonak eramaten dituzulako”. Marife Muñozek esaten digun moduan, zailena hastea izaten da, hortik

aurrera... “Horrela da, bai. Hasieran, gauza berri guztiakin gertatzen den moduan, beti ere errespeto edo beldur piska bat daukazu, baina behin hasi eta gero lana arazorik gabe egin dezakezula konturatzen zara. Konfiantza hartuaz zoaz eta horrek aurrera egiteko animatzen zaitu. Ni laister autobus haundiarekin hasiko naizela uste dut”.




Osintxuko Muniola gasolindegian langile guztiak neskak dira. Argazkian, Ane Ostolaza.



# Eta zuk, zein izakiren klonikoa egingo zenuke aukera izanez gero?



**Garbiñe Garcia**



**Oskar Rueda**



**Igor Larrañaga**

Ideiarik ere ez. Ez dut uste inorena egingo nukeenik, ideiak ez nau gehiegi erakartzen.

Ez dakit ba! Kim Bassinger-ena beharbada, Mel Gibson-ena. Baina ideia ez zait gehiegi gustatzen, klonekin *trastada* handiak egin daitezke eta.

Zaila da, Ronaldorena beharbada, Athletic-en jokatzeko. Baina bi pertsona berdinak egotea, ez dakit..., batekin nahikoa da.



**Aitor Amutxastegi**



**Miren Amor**



**Marta Castro**

Ez dakit, gustatzen zaidan neskaren batena edo zerbait inportantea egin duen pertsona batena, Einstein edo. Baina ez zait ideia gustatzen.

Guaporen batena, telebistakoren bat... bestela Brad Pitt, Val Kilmer eta Tom Cruisen klonak ere ondo egongo lirateke.

Ez zait ideia gustatzen. Badago jende interesantea, gustatzen zaidana baina klon bat ateratzea hortik... Batekin nahikoa da, bakoitza den bezalakoa.

**KONDE** PANADEROKUA

Burdiñate, 1 ☎ 76 02 57

ARREGUI, E.M.

**AROSZTEGIA**

- AROZLAN MEKANIKOAK
- SUKALDEKO ARMAIRUAK
- HORMA ARMAIRUAK
  - ATEAK, etab.
  - TARIMAK-PARKETAK
- NEOPRENOZKO JUNTADUN EGURREZKO LEIHOAK
- PVCzko LEIHOAK

Urteaga, 20 ☎ 76 11 73  
Erakusketa: Bidekurutzeta, 38

**IKUSBI**

ALKANDORAK, JERTSEAK, BAKEROAK ETA OSAGARRIAK

Irala, 5 ☎ 76 53 09

**iletxo**

ileapaindegi mistoa

**BEGOÑA ARZELUS**

Fleming Doktorea, 7 BERGARA  
☎ 76 53 15

PANADEROKUA

**IAZTETXEAL**

Kontxi Idigoras

Asteburuetan bertako babak eta sabiesak

SALBADOR, 10 ELGETA TLF. 76 82 73





## Gola zelaian, bakea lurrean

**B**ilboko Zazpi kaleetako zortzigarrenean galdutako taberna batean eserita nago eta ez pentsa nire kontaketa kokatzeko antzezleku imaginario bat besterik ez denik.

Partidu egunek nolabaiteko giro misterioso bat uzten dute telebista geletatik kanpo, kalean ibiltze hutsa edo partiduari so egite ez hutsa pekatua bailitzan. Hala ere, badirudi, nahi gabe ere edaten dugun golsalda horren ajeak itsututa uzten gaituela aste osoan kaleratu beharreko eskandaluen aurrean: sekretu ofizialen izenaz ezkutututako krimen berriak, langabeziaren gorakadaren datuak, manipulazio genetikoaren ondorioak...

Bakerako bidean eztabaidagarria izan beharko litzatekeen proposamenaren zentsura eta kriminalizazioak oihartzun gutxi izan du Ronaldoren boltsikoko milioiek egiten zuten zaratarekin alderatuz sanba doinuen erritmoan.

Biharko egunkariko gehigarrian Raul UBI errepikatzen ari delako berria zabaltzen den bitartean, gazte bat gehiago epaitua izango da gizarte justuago baten aldeko borrokan ideia antimilitaristak defenditzeagatik; oraingoan lagun bat.

Badirudi zenbaitzuek arrazoa izatea Agurain alde horretan: gola zelaian, pakea lurrean.

**Larraitz URIBESALGO**



## Proposamentxo

**J**oan zen asteburuko tiroketarekin; barkatu, istripuarekin lotutako burutazio bat eta beste proposamentxo bat egin nahi ditut, nahiz eta garbi izan ez direla proposamentzarako garairik onenak. Hasteko, zera datorkit burura: zenbat zaintzailek inguratzen ote gaitu kalera irtetzen garen bakoitzean? Alde batetik, uniformedunak. Egun batean, gustoz (edo disgustoz), kontu itzazue zenbat ertzain kotxe ikusten dituzuen herriko kaleetan arratsalde batean; harritu egingo zarete. Bestetik, sekretak. Dirudienez, kolore desberdinetako (marroiak, gorriak, berdeak...) mordoxka bat dabil gure artean; beti prest, pistola atera eta gaizkileak baino azkarrago izanez gure ongizatea defendatzeko... Jope!! Koadrilakoekin ere ezin izango gara fidatu; ezezagunekin ligatzeko moduan...

Gertakari horren beste irakurketa bat ere egin daiteke, ordea: gizakiok, sarri, gure animalia sena ateratzen dugula. Putreek edota lehoiek, euren arteko borroken ondoren, sarraskia jatea edo emea estaltzea sarizat duten moduan; beste hauek gure seguritatea zaintzea daukate premiotzat. Horrela bada, horrela izan dadila.

Horien aurrean, hona nire proposamena: "hautaketa naturala"; euren artean borroka dezatela, eta pistolarekin trebeena denak edo punteria onena duenak edo listuenak edo... beste guztiak Euskal Herritik desagertarazi, eta saria gu geu babestea izango litzateke. Bale?

Ah! Borrokaldiaren beroaldian guzti-guztiak desagertuz gero, trankil, norbere burua majo zainduko dugu eta.

**Roberto IZAGIRRE**

**CAMACHO**


**Drogeria  
Usaindegia**

Bidekurutzeta, 24 BERGARA  
☎ 76 13 35

**POL-POL**

**Taberna**

☎ 76 07 78



**BEHEKO  
TABERNA**

**Menestra eta konejoa  
dira gure berezitasunak**

ANGIOZAR Tfnoa: 76 55 74



**gizon emakume**  
Barrenkale, 35 BERGARA

**ONENA**

**TINTATEGIA**

Barrenkale, 29 BERGARA



■ Argazkilari sarituak

Joan zen urteko *Argazki bidez* zirkuituko sari banaketa egin zen otsailaren 22an. Euskal Herriko 100 bat argazkilarik hartu zuten parte iazko edizioan eta sari banaketan lehendabiziko 10 postuetan sailkatutakoak saritu zituzten. Oraingoan ere Bergarakoak primeran aritu ziren: **Jose Luis Feok** lehen postua lortu zuen, **Jabier Vicente** seigarrena izan zen, **Jose Aguayo** zortzigarrena eta, azkenik, **Daniel Santosek** bederatzigarren postua eskuratu zuen (argazkian ezkerretik eskumara euren trofeoekin). Ea aurten ere eusten dioten...



■ Denboraldi hasiera

Domekan, **herriko zikloturistek**, denboraldiari hasiera ematen dion ohizko irteera egin zuten. Goizeko 9:15etan Plazan 35 lagun bildu ziren euren maillot ikusgarriekin eta urteko lehen pedalkadak eman zituzten. Gamarra, Gasteizeraino joan eta

Landatik bueltatu ziren, 80 bat kilometroko buelta emanaz. Urtero moduan, **Dorletako Amari** lora eskeintza egin zioten errepidean bere laguntza izateko. Aurtengo denboraldian 3.200 kilometro egitea espero dute eta uztailaren 6an denboraldi amaierako irteera egingo dute. Ordurarte bañute bai sasoi onean jartzeko aukera...



 **DEBA GARAIA**  
**INMUEBLE ETA FINANTZA AGENTZIA**  
 Arrasate / Bergara / Elgoibar  
**T. Aranzadi, 2 behea ☎ 76 21 80-76 06 37**

  
**☎ 76 20 61**

**PINTXO eta BOKADILOAK SEKULAKO MARTXA!!**  
**EUXEBIO II**  
 Irala Kalea z/g ☎ 76 07 92





■ Bertso afaria

Zapatuan, ohitura zahar bat berreskuratu nahirik, **San Emeterio eta San Zeledonioren** omenezko jai eguna izan zen **Osintxun**. Lehen martxoaren hasieran izaten ziren Osintxuko jaiak eta bertako bizilagunek egun horri bultzadatxo bat eman



nahi izan diote. Horrela, arratsaldean, partxis eta mus txapelketak jokatu ziren; partxisean, 8 bikoteren artean, **Estibaliz Salaberria** eta **Isabel Vazquez** nagusitu ziren; musean, berriz, 10 bikote izan ziren lehian eta **Jabier eta Jose Miguel Barrenetxea** aita- semeak izan ziren txapelkunak. Irabazleek saski bana

eskuratu zuten. Gauean, 70 lagun inguru bildu ziren Txuringo jatetxean izandako bertso afarian. Jo ta su trikitilariak alaituta, **Jon Sarasua eta Euskitze** bertsotan fin aritu ziren...

■ Arrantzan

Arrantza denboraldia hastear dagoela eta, martitzenean udal langileak arrantzan izan ziren Deba ibaian, **Usondo parkearen inguruan**.



Dagoeneko bi urte

inguru errekan zeraman Udaleko hesi bat erreskatatzeko lanetan izan ziren eta langileek izugarritzko abilezia erakutsi zuten hesia ateratzeko erabilitako gakoarekin. Bustitzeke, hesia berreskuratzea lortu zuten. Faena amaieran, Santa Marinako zubian bildutako ikusleen txaloak bakarrik bota ziren faltan...

**Zertan dihardute ba?**



**Mila Andueza**

Bergarako Orfeoiko presidente berria dugu, Martin Etxanizen ordeiz. Milarekin batera Joseba Iparragirre (presidenteordea), Nerea Unamuno (idazkaria) eta Juantxo Etxaniz (diruzaina) izango dira zuzendaritzan. Milak ia 30 urte daramatza Orfeoian: *“Orfeoia momentu onean dago, ilusio askorekin ari gara”*. Orfeoia 75 urte beteko ditu datorren urtean eta hasi dira urteurrenaren inguruko ospakizunak aztertzen. Bestalde, Orfeoia Euskal Abesbatzen I. Lehiaketan parte hartuko du domekan Zumarragako Antigua elizan.

**igok eta Txomin**

Pintura orokorrean.

Paper, tela, binilo, kortxo... estaldurak.

Gotelesa, iztukuak eta bestelako imitazioak.

ANTZUOLA  
☎ 76 60 39

BERGARA  
☎ 76 19 98

**ZUBIETA**  
*elektragintza*

**MOTORREN BOBINAKETA**  
**ERA GUZTIETAKO INSTALAKUNTZAK**

**Kruz Gallastegi, 2 behea**  
☎ 76 23 48

**ARGI PLASTIC**

PVC, aluminio termikoa, egurra, poliuretanoa...  
Leihoak, atek, manparak...

**Eska ezazu aurrekontua**  
**konpromezu barik**



Erakusketa: Masterreka 14, behea BERGARA  
Tfnoa: 76 55 02 Faxa: 77 11 30




# Jabi Larrañaga

**Infernukua taberna tradizio haundikoa dugu Bergaran. Gaur egun dagoen toki berean zabaldu zen 1893. urtean eta orain dela ia 16 urte egin ziren azken berrikuntza lanen ondorioz, familiako tradizioari ertsiz, bertan ari da lanean Jabi Larrañaga, herriko tabernari ezagunenetakoa.**

**- Zer behar da tabernari ona izateko?**

- Lana eta pazientzia.
- Tabernari ez izatekotan zer izan nahi zenuke?
- Ez dut sekula pentsatu...
- Lanerako, asteguna ala astebukaera?
- Ez pentsa, antzerakoak dira.
- Barra ala parrila?
- Parrilan gustorago egoten naiz.
- Zein da zure espezialitatea?
- Txitxarroa beharbada.
- Zure plater faborittoa?
- Txuleta on bat.
- Bazkaltzeko, ura ala ardoa nahiago?
- Ardoa?
- Kafe hutsa ala ebakia?
- Hutsa.
- Zenbat sagardotegitan izan zara aurtent?
- Batean bakarrik.



*“Tabernari ona izateko pazientzia eta lana behar dira.*

*Lanerako, asteguna eta asteburuaren artean ez dago hainbeste alde. Tabakoa lagako dudala esan izan dut, baina ez dut bete”*

**- Lanean, musika lasaia ala martxosoa?**

- Erdiko bat.
- **Musika talde bat?**
- Delirium Tremens.
- **Laneko ordu hilak, zertan?**
- Aukera gutxi dago: periodikoa irakurri, telebista piskat...
- **Zenbat zigarro erretzen duzu egunean?**
- 30 bat.
- **Lagatzeko asmorik?**
- Asmoa bai, baina zaila da...
- **Gustoko jantzi bat?**
- Txandala, eroso da eta.
- **Kirol bat?**
- Pelota.
- **Pelotari bat?**
- Retegi II.a.
- **Nork irabaziko du banakako aurtengo txapelketa?**
- Belokik.
- **Zure jaiegunean zer egiten duzu?**
- Pasiatu, bizikletan ibili...
- **Bergarako txoko bat?**
- Goiko Estazioa.
- **Inguruko herri bat?**
- Mutriku.
- **Filme bat?**
- Aspaldian ez naiz egon zinean.
- **Zer da esan bai, baina egin ez duzun gauza bat?**
- Tabakoa laga.
- **Urtaro bat?**
- Udazkena.
- **Zer egingo duzu oporretan?**
- Normalean eguzkitan trankil egotea gustatzen zait.

## GURIA

### Taberna

Bidekurutzeta, 5  
☎ 76 20 34

## MAHER

### Biltegiak L.E.

### Oihal etxea

Bidekurutzeta, 29  
☎ 76 22 90 - 76 26 75

## MARGA

**%70eko deskontua  
neguko erropetan.  
Merezi du aprobetxatzea!**



SAN PEDRO, 22. BERGARA. TELEFONOA, 76 05 37



**ETXEBIZITZA**

**Garajea** salgai Burdiñaten. 2,6 milioi. ☎ 76 31 79.

**Ganbara** amueblatua salgai. Berria, prezio interesgarria. ☎ 76 47 27.

**Garajea** salgai Bolun. ☎ 76 54 98.

**Garajea** salgai edo alokairuan Burdiñaten. ☎ 76 40 03.

**Pisua** salgai Donostian, Amaran. ☎ 76 31 79.

**Pisua** salgai Martokuan. ☎ 76 59 96.

**Pisua** salgai Aranerrekan. ☎ 70 82 90.

**Garajea** salgai Santa Marinar. ☎ 76 18 95.

**Pisu** amueblatua salgai Mugertza kalean, 3. zenbakian. ☎ 76 53 79.

**Arrasaten** karabanendako lokalak alokairuan. ☎ 76 38 26.

**Pisua** salgai Aranerrekan, Bolun. Altzariekin, 80 m2, egoera onean. ☎ 76 47 76 (gauzez).

**Pisu** bat alokairuan hartuko genuke. ☎ 76 53 79.

**Etxe** amueblatua salgai Deban. ☎ 76 62 27.

**Garajeak** salgai Torrekuan eta Espoioian. ☎ 76 33 88.

**Pisua** salgai Zarautzen. ☎ 76 53 69/13 34 67.

**DENETARIK**

**Pevey** aplifikadorea salgai. ☎ 76 16 32.

**Sony** pletina bikoitza salgai. ☎ 76 05 38.

**Renault 11** kotxea (SS-AC) eta Vespa motorra (VI-I) salgai. ☎ 76 08 51.

**Nissan Vanette** furgoneta salgai. Hiru urte, egoera onean. ☎ 76 58 94.

**Karnabaletako** martitzenean urrezko pultsera galdu nuen. ☎ 76 39 33.

**Kawasaki** Vulcan 500 motorra salgai. Egoera oso onean. ☎ 76 64 70.

**Ford Orion** (25.000 Km) eta Lada Niva (55.000) kotxeak salgai. ☎ 76 39 93.

**286** ordenagailua (40 mega) salgai. ☎ 76 49 29.

**Sango** karro-denda salgai. 250 Kg. ☎ 76 33 92.

**Mendiko** eskiak (1,80 m) erosiko nituzke. ☎ 76 05 38.

**Txirrindulari** bizikleta salgai. ☎ 76 50 22 (Karlos).

**Gasolinako** kotxe teledirijitua salgai. ☎ 76 04 63.

**Masaia** emateko kamilla erosiko nuke. ☎ 76 24 66.

**Braco** ehiza txakurra galdu da. Marroia eta zuria. Sarituko da. ☎ 76 17 82.

**Bitrina** frigorifikoa salgai. ☎ 76 23 42 (Noemi).

**LANA**

**Mate**, fisika eta kimika klaseak. ☎ 76 70 40.

**Haurrak** zainduko nituzke. ☎ 76 45 87 (Maribel).

**Tabernaria** behar da. ☎ 76 23 71.

**Elosuko** Elurmendi elkartean garbiketarako egiteko lagun bat behar da. ☎ 76 64 91.

**Garbiketa** lanak egingo nituzke. ☎ 76 71 21.

**Mate** eta fisika klaseak ematen dira. ☎ 76 03 72.

**OHO** eta BBBko klaseak ematen ditut. ☎ 76 33 26.

**OHO** klaseak ematen ditut. ☎ 76 10 17 (Rosa).

**Mate**, fisika eta kimika klaseak. ☎ 76 24 31.

**Haurrak** edo zaharrak zaindu eta etxeko lanak egingo nituzke. ☎ 76 06 12.

**Klinika** auxiliar batek zaharrak edo helduak zainduko lituzke. ☎ 76 64 47.

**Neska euskalduna** behar da arratsaldez haurrak zaindu eta etxeko lanak egiteko. ☎ 76 30 37.

**Neska** bat behar da etxeko lanak egiteko. ☎ 76 91 30 (Daniela).

**Enpresaritzan** lizentziatuak, OHOKo klaseak ematen ditu. ☎ 76 47 67 (Nere).

**Neska** batek haurrak edo zaharrak zaindu eta etxeko lanak egingo lituzke. ☎ 76 40 85 (goizez).

**INFERNUKUA  
TABERNA**


Masterreka, 23 ☎ 76 18 49

**Usoa Pub**☎ 76 38 57  
Irala, 1**LASA  
Jatetxea**

OZAETA JAUREGIA Tfnoa: 76 10 55 Faxa: 76 20 29



# BONOFOTOA



## Jesus Mari Jimenez

**Jesus Mari Jimenezek** jaso du aste honetan BONOFOTOko saria, aurrekoan egindako galdera berak asmatu duelako, eta ondorengo zozketan bere txartela irten delako. Argazkian agertzen zen plazaren izena galdetzen genizuen eta erantzun zuzena **Jon XXIII.a** zen. Beraz, aste honetako 10.000 pezetak **Jesus Mari Jimenez** eman dizkiogu. Zorionak!!

*Enseñanzako sarreraren goialdean irakur dezakegunez XVIII. mende amaieran fundatu zuten berau; baina zehazki zein urtetan?*

Izena: \_\_\_\_\_ Abizena: \_\_\_\_\_ Tfnoa: \_\_\_\_\_

Saria  
10.000 pzta.

Moztu paper hau eta  
ekarri astebete baino lehen

**BERRIGARA**  
Errotalde Jauregia Bergara



1 TALDEAK	P	J	G.A.	G.K.
1. A ZE FLAXA ETXAGI	40	15	74	25
2. ERROTAGAIN	38	15	69	25
3. JAUJA OH ZEREZOS	30	14	50	35
4. BAR CANALEJAS	29	14	52	33
5. ARLOTEAK/OILAGORRA	17	15	59	39
6. OGIZUN	16	14	36	58
7. ORTZI	15	15	32	49
8. MONGATXURRA	14	13	35	44
9. AZPEITXI JATETXEA	14	14	46	49
10. BILDURBAREK OPEL/LAM	14	14	49	55
11. PAGOMENDI	13	15	33	51
12. UFALA	8	15	32	43
13. MADURA INDUSTRIAS GOI	8	14	36	67

2 TALDEAK	P	J	G.A.	G.K.
1. ARTUSAMAK BERGATRANS	30	15	56	39
2. ETXAGI	27	14	52	47
3. KAYAK OS JARDINEIROS	26	15	63	32
4. UVE BIKOITZA JAM	25	15	41	50
5. HALTZARI	23	15	47	35
6. SOROPOTROAK	21	14	41	30
7. LA JUVE	20	15	55	40
8. EZINLEIKE	19	15	46	51
9. ERI	19	14	44	39
10. AGIÑASPI	17	15	40	52
11. AGIRREBEÑA JATETXEA	15	15	43	46
12. INDARGORRI	14	15	23	34
13. AUTOBEREZI	13	15	36	82

3 TALDEAK	P	J	G.A.	G.K.
1. GUADALEST	39	15	65	25
2. FAC	36	16	79	37
3. PJS	32	16	61	37
4. NEKROFILIKOS	27	16	60	59
5. NAHIKARI HOOLIGANS	26	16	58	45
6. TXIPIRON	25	15	43	33
7. JAKINA PATXARAN TEAM	19	15	58	50
8. IGANDEKOAK	15	15	35	56
9. MOSKIS	15	15	48	29
10. EH BITERRAK	14	15	36	54
11. CONSTRUCCIONES BERGARA	11	16	35	83
12. MRW	10	15	31	55
13. GANBARA	10	15	31	56

4 TALDEAK	P	J	G.A.	G.K.
1. MANITOU	42	15	104	18
2. ARBE KIROLAK	40	15	95	31
3. ETENGABE	28	15	42	34
4. OSINTXU	28	15	55	39
5. SLO	28	15	59	52
6. MATXAKATEGI	26	14	52	27
7. XURRUPAK	21	14	32	52
8. KOMANDO PIPERRAK	16	15	53	61
9. AMILOTX	13	15	31	56
10. PANORAMIX	13	15	53	58
11. POLIDEPORTIVO TABERNA	13	15	34	74
12. PATA NEGRA	9	14	30	89
13. ALDOKA MALDOKA	5	15	31	55
14. PITTIXAK	0	0	0	0

## Jokoz kanpo



### Diego Valor

#### ARBE KIROLAK

#### ZER MODUZ TXAPELKETA?

Oso ondo gabilta, partidu bakarra galdu dugu.

#### ZURE TALDEAREN GAUZARIK ONENA ETA TXARRENA?

Onena aurrealdea eta txarreña ezer ere ez.

#### KANPORATU ZAITUZTE INOIZ?

Bai, denbora galtzeagatik.

#### PARTIDUAK GOIZEZ ALA

#### ARRATSALDEZ?

Goizez.

#### TXAPELKETAKO TALDERIK ONENA?

A Ze Flaxa Etxagi.

#### JOKALARIRIK ONENA?

Gure taldeko "Pitu"

#### SARTU DUZUN GOLEADARIK

#### HANDIENA?

Behin 15 gol sartu genizkion Pata Negra taldeari.

#### ETA JASOTAKOAK?

6 eta 0 galdu genuen Manitu taldearen kontra.

#### ZE POSTUTAN AMAITZEA ESPERO DUZUE?

Lehenengoak edo bigarrenak, eta horrela mailaz igoko dugu.

#### LIGA PROFESIONALEKO JOKALARIRIK ONENA?

Alfonso.

#### MUNDUKO KIROLARIRIK ONENA?

Mike Tyson.

#### EUSKAL HERRIKOAK?

Indurain.

#### JATEKO PLATER BAT?

Rapea.

#### EMAITZAK

LA JUVE-INDARGORRI	2-4
AUTOBEREZI-KAYAK OS JARDINEIROS	4-3
PAGOMENDI-ARLOTEAK/OILAGORRA	1-2
OSINTXU-AMILOTX	7-4
KOMANDO PIPERRAK-SLO	1-5
IGANDEKOAK-NEKROFILIKOS	3-5
PJS-FAC	5-9
A ZE FLAXA ETXAGI-ORTZI	4-3
OGIZUN-MADURA INDUSTRIAS GOI	2-8
ARTUSAMAK-HALTZARI	2-3
AGIRREBEÑA-EZINLEIKE	8-4
AGIÑASPI-UVE BIKOITZA JAM	7-1
SOROPOTROAK-ETXAGI	2-4
ERROTAGAIN-UFALA	8-0
NAHIKARI HOOLIGANS-CONSTRUCCIONES BERGARA	15-2
MOSKIS-TXIPIRON	1-2
PATA NEGRA-MATXAKATEGI	1-14
XURRUPAK-ARBE KIROLAK	1-8
ALDOKA MALDOKA-POLIDEPORTIVO TABERNA	0-1
ETENGABE-PANORAMIX	2-1

#### PARTIDUAK

##### Zapatuan barruan

09:00: ALDOKA MALDOKA-AMILOTX • KOMANDO PIPERRAK
10:00: KOMANDO PIPERRAK-POLIDEPORTIVO • AMILOTX
11:00: XURRUPAK-PATA NEGRA • POLIDEPORTIVO TABERNA
19:00: MONGATXURRA-BILDURBAREK OPEL/LAM • ORTZI
20:00: PAGOMENDI-ORTZI • MONGATXURRA

##### Zapatuan kanpoan

10:00: MANITOU-MATXAKATEGI • PATXARAN TEAM
11:00: NAHIKARI HOOLIGANS-PATXARAN TEAM • MANITOU
16:00: OGIZUN-ERROTAGAIN • MADURA INDUSTRIAS GOI
17:00: AZPEITXI JATETXEA-MADURA • ERROTAGAIN
18:00: A ZE FLAXA ETXAGI-UFALA • AZPEITXI JATETXEA

##### Domekan barruan

09:00: GUADALEST-GANBARA • EH BITERRAK
10:00: EH BITERRAK-PATXARAN TEAM • GUADALEST
11:00: OSINTXU-PATA NEGRA • PATXARAN TEAM
12:00: XURRUPAK-MATXAKATEGI • OSINTXU
13:00: IGANDEKOAK-MOSKIS • MATXAKATEGI
16:00: ETENGABE-POLIDEPORTIVO TABERNA • MANITOU
17:00: MANITOU-ARBE KIROLAK • ETENGABE
18:00: BAR CANALEJAS-BILDURBAREK • OH ZEREZOS
19:00: JAUJA OH ZEREZOS-ARLOTEAK • BILDURBAREK
20:00: KAYAK OS JARDINEIROS-UVE BIKOITZA • ARLOTEAK

##### Domekan kanpoan

09:00: MRW-TXIPIRON • HALTZARI
10:00: LA JUVE-HALTZARI • AGIÑASPI
11:00: AGIÑASPI-INDARGORRI • LA JUVE
12:00: AUTOBEREZI-EZINLEIKE • INDARGORRI
16:00: SOROPOTROAK-ARTUSAMAK • ETXAGI
17:00: ERI-ETXAGI • NEKROFILIKOS
18:00: PJS-NEKROFILIKOS • ERI

#### ESKOLA KIROLA

11:00: INSTITUTUA-MARIAREN LAGUNDIA
12:00: LOS TXISTIS-MP
12:00: MIGUEL ALTUNA-WALTER



## TXINPARTAK

### Pilota ikastaroa

Udal Kirol Zerbitzuak Euskal Pilota Eskolan ikastaroa antolatu du. Geografia eta historia, gorputz heziketa eta eskulanak landuko dira. Izena emateko epea astelehenean bukatuko da eta 2.000 pta. kostako da. Halaber, oinarrizko rugbi ikastaroa antolatu da Arrasateko Musakola kiroldegian.

### Arku tiraketa

Arku tiraketa elkarta sortzeko asmoa du Fernando Markina bergararrak. Markinak esan digunez, asko ei dira Bergaran arkuarekin dabiltzanak eta horiek batzeko elkarte sortzeko asmoa du. Dagoeneko harremanetan jarri da Legazpiko klubarekin eta elkarteantartu nahi dutenek 76 42 04 telefonora dei dezakete.

# Txirrindulari afizionatu eta beteranoekin zita Gorlako igoeran

**Domekan** jokatuko da txirrindulari afizionatu eta beteranoentzako Gorlako igoeraren 23. edizioa. Beteranoentzako irteera goizeko 11:30etan izango da, afizionatuak, aldiz, 12:00etan irteerako dira San Martin plazatik.

Bergararik aurtengo denboraldirako talde ofiziala lortu duen txirrindulari afizionatu bakarra Jon Unamuno da eta Arrasateko Born-Jay taldean ari da. Joan zen urtean bikain ibili ondoren Unamunok lehenengo urtea du afizionatueta eta joan zen domekan Atarrabian jokatutako lasterketan ihes egindako tropelarekin heldu zen. Halere, Gorlako igoeran ahalik eta ondoen ibiltzen saiatuko den arren, irabazteko aukerarik ez duela esan digu. *"Gorlako igoerara txirrindulari afizionatu onenak etorriko dira eta ez dut irabazteko aukerarik. Abalik eta ondoen ibiltzen saiatuko naiz. Gainera oraindik ez nau fisikoki topera"*



Joseba Arregik irabazi zuen iaz afizionatu mailako lasterketa.

esan digu Unamunok. Talderik gabe dauden Arkaitz Ruiz de Loizaga, Gotzon Mendizabal, Arkaitz Mendizabal eta Xabier Uribealgo bergararrak ere irteeran izango dira.

Partehartzaileei dago kienez, antolatzaileek ez dakite oraindik zenbat txirrindulari etorriko diren; baina datozenak afizionatu mailako onenak izango direla ziurtatuta dago. Joan zen urteko ira-

bazlea Iberdrola taldeko Joseba Arregi etorriko da eta faboritoen artean Baque taldeko Pedro Horriollo aipatu behar. Beteranoetan, berriz, joan zen urteko irabazlea, Inaki Emaldi, etortzeko da eta espero dezagun joan zen urtean bezalako istripurik ez gertatzea. Gorlarako bidea goizeko 11etan itxiko da eta kotxeek 100 pta. ordaindu beharko dute lasterketa ikusi nahi badute.

## Herriko pilotariak sasoi onean

BKEko pilota taldeko maila guztietako bikoteak sailkatu dira Deba Beheko taldeen aurka jokatuzko faserako. Kadetetan, Redondo eta Muguruza maila bikaina ari dira erakusten eta oraindik ez dute partidurik galdu. Jubeniletan, Zabaleta II.a eta Zabaleta III.ak partidu bakarra galdu dute eta 2. postua ziurtatuta dute. Azkenik, senior mailan Muruamendiaraz eta Ezkio lehen postuan sailkatu dira. Astelehenean Aretxabaletaren aurka jokatuko dute. Bestalde, Kadete mailako Euskadiko Ligako finalerdietan, Gorka Martinek 18 eta 17 galdu zuen Mintegiaren kontra. Asteburu honetan itzulerako partidua jokatuko du Tolosan.





## KARTELDEGIA

## FUTBOLA

## ◆ Bergara-Boskozaleak

2. mailako erregionalak.  
Domeka. 17:00. Ipintza.

## ◆ Bergara-Azkuene

Ohorezko mailako jubenilak.  
Zapatua. 17:15. Ipintza.

## ◆ Bergara-Eibartarrak

2. mailako jubenilak.  
Zapatua. 15:30. Ipintza.

## ◆ Bergara-Aldapetarrak

Infantilak.  
Domeka. 10:30. Ipintza.

## ◆ Bergara-Alde Zaharra

Emakumezkoak.  
Zapatua. 12:00. Ipintza.

NESKEN 3. FUTBITO  
TXAPELKETA

## ◆ Nahikari Taberna-PWA

Zapatua. 12:00. Miguel Altuna.

## ◆ Potzu-The Hurricanes

(Power Rantxer)  
Zapatua. 16:00. Miguel Altuna.

## ◆ Gu Geu-Blue Star

(Burdinezko Damak)  
Zapatua. 16:00. Miguel Altuna.

## ◆ Power-Burdinezko Damak

(Blue Star)  
Zapatua. 17:00. Miguel Altuna.

## ◆ Power-Burdinezko Damak

(Blue Star)  
Zapatua. 17:00. Miguel Altuna.

## SASKIBALOIA

## ◆ BKE-Goierrri

Kadete gizonetzkoak.  
Zapatua. 10:00.

Mariaren Lagundia.

## ◆ BKE-Eskoriatza

Kadete emakumezkoak.  
Zapatua. 12:15. Kiroldegia.

Zapatua. 12:15. Kiroldegia.

Zapatua. 12:15. Kiroldegia.

## ESKUBALOIA

## ◆ Begara-Elgoibar

Kadete neskek.  
Zapatua. 16:15. Kiroldegia.

Zapatua. 16:15. Kiroldegia.

## Igor Gutierrez

## Euskadiko Ligako finalerdian

**Igor Gutierrez pilotaria, junior mailako Euskadiko Ligako finalerdietara heldu da eta joan zen asteburuan Aio gernikararren kontra jokatu zuen lehenengo partidua. 22 eta 5 galdu zuen; zaila den arren, gaur gauean Udal Pilotalekuan finalerdiari buelta emateko aukera izango du.**

- **Espero zenuen emaitza txar hori?**

- Partidua jokatuurretik ikusita neukan aurkaria jokatzeko eta baneukien ona zela; baina ez nuen espero horrenbestegatik galtzea. Berak oso ondo sakatu zuen eta gero dejada asko sartu zizkidan. Pilota motelak aukeratuko ditut, aurreko partiduan berak biziak atera zizkidan eta horrek min handia egin zidan.

- **Zela ikusten duzu gaurko partidua?**

- Amabirjina bajatzen ez bada jai daukat. Hala ere, sakea hartzen badut, aukera izan dezaket.

- **Espero zenuen Euskadiko Ligako finalerdietara heltzea?**

- Iaz apuntatu nintzen eta oso erreta bukatu nuen. Lehenengo fasetik ez nintzen pasatu. Aurten hobeto ibili naiz eta ez nuen espero finalerdietara heltzea.

- **Noiz hasi zen txapelketa?**

- Urrian hasi ginen Gipuzkoa mailako sailkapen partiduekin eta gero Euskadi mailako eta Errioxako 8 onenen artean sailkatu nintzen. Hor-

tik finalerdietara sailkatu nintzen.

- **Iaztik hona zertan hobetu duzu?**

- Ezkerra hobetu dut, baina oraindik falta zait.

- **Normalean binako partiduetan atzelari moduan aritzen zara. Asko aldatzen da banakora pasatzean?**

- Asko. Mano-manoan fisikoa gehiago landu behar da eta hor ez dago astedendirik.

- **Noiz arte jarraitzeko asmoa duzu?**

- Ez dakit, orain oso gustora nago eta asko disfrutatzen dut jokatzeko. Nahiz eta profesionaleta-

ra ez igo, disfrutatzen dudana bitartean pelotan jokatzen jarraituko dut.

- **IVEF ari zara ikasten. Etorkizunean pilota entrenatzailea izateko asmorik?**

- Asmoa bai, baina txarrena da oraindik ez dagoela biderik. Badaude pelota prestatzaileak, baina oso gutxi.

- **Gehien gustatzen zaizun pelotaria?**

- Jose Mari Zezeaga, eskumarekin pelota jotzeko daukan eragatik.

- **Zure kualitatetik onena?**

- Ez dudala errez amore ematen.



"Irabazteko aukerak izateko sakea hartu behar dut".

**“Disfrutatzen dudana bitartean pilotan jokatzen jarraituko dut”**





Argazkia: Jon Albeniz

## Superheterodinos '73

**G**oiko erretratu 1973eko Pazkuetan aterata dago. Garai hartan kuadrila arteko lehiaketa izaten zen jaietan eta lagun koadrila hau lehen saria eskuratzeko asmoz kaleratu zen. Kamiseta hori ikusgarria jantzi, pankarta dotorea egin eta, turuta eta bonboaren laguntzaz, kalejiran egun guztian jaiak alaitzeko asmoz. Elektriko ikasketak egiten ari ziren orduan Seminarioan eta lehen irrati aparailuari ematen zitzaion izen xelebrea (Superheterodino) hartu zuten. Eta egun horretarako euren lema ere asmatu zuten. Honela zioen: *"No somos bastos ni finos..., ¿Quienes somos? ¡¡Los superheterodinos!!"*.

Horra hor argazkian agertzen direnen izenak, ezkerretik eskumara:

**Zutik:** Edurne Begiristain, Luis Angel Herran, Iñaki Mujika, Miren Umerez, Agurtzane Agirre, Elena Moñux, Amaia Ibarra, Ikerne Iturbe, Mila Miner, Lupe Garcia, Benar Maiztegi, Miren Itziar Romaratezabala, Julen Narbaiza, Blanca Narbaiza, Eli Ibarra, Anaje Unamuno, Iñaki Oلابarria eta Karlos Agirrezabal.

**Makurtuta:** Marije Ibañez, Juan Otamendi, Bego Barrena, Bittor Garitano, Iñaki Irazola, Mariaje Berraondo, Jon Albeniz, Mari Karmen Otaño, Oskar Elkoroberezibar, ezezaguna, Reyes Miner, Jon Romaratezabala, Jabi Larrañaga, Itziar Eguren, Lurdes Urrutia, Maritxu Muruamendiaraz, Izaskun Zubizarreta, Reyes Ruiz de Eginio, Migel Angel Olabarria eta, etzanda, Gabilondo "Charles".

Industria  
hornikuntzak



Industriaren  
alde

### MEMESA S.L.

Nafarroa etorbidea, 9 ARRASATE. ☎ 79 42 22 • Faxa: 79 47 89  
Santa Kruz, 25 ARETXABALETA. ☎ 77 11 75 • Faxa: 77 13 08



San Antonio, 5 BERGARA ☎ 76 20 21

## zumelaga

### JATETXEA

ZERBITZU, KALITATE, KANTITATE ETA PREZIOAN PAREKORIK EZ!!



# BERGARAKO Osasun gida

## ■ ALBAITARIAK:

- ARATZ KLINIKA (ROMAN LAZPIUR). Mobilak: 907 48 71 19
- ETXEBERRIA JULIO (GRANJAKO ANIMALIAK)
- ETXEBERRIA JULIO (DEBA GARAIKO ALBAITARI OFIZIALA)
- IRASTORZA BENGEOA SABIN (GRANJAKO ANIMALIAK)
- NOGUEIRA HUMBERTO (BALDANA KLINIKA). Mobilak: 908 87 68 47

Zurradero, 6 behea  
Mobilak: 908 77 17 32  
Mobilak: 908 77 17 32  
Iribar baserria ANTZUOLA  
Koldo Eleizalde, 28  
☎ 76 70 67  
☎ 76 43 29  
☎ 76 43 29  
☎ 76 63 46  
☎ 76 27 97

## ■ ANALISI KLINIKOAK:

- LABORRA ISABEL

Oxirondo 4, 1. B  
☎ 76 32 06

## ■ BARNE MEDIKUNTZA:

- IRIGOYEN VICTOR

Oxirondo 4, 1. B  
☎ 76 32 06

## ■ DENTISTAK:

- ASTIAZARAN SOLOZABAL
- BERGARA HAGIN KLINIKA
- GOROSABEL J. ALBERTO
- IRIARTE IDOIA
- SUDUPE FELIPE
- GIPUZKOAKO ESPEZIALITATE ODONTOLOGIKOETARAKO ZENTRUA, E. M.

Iparragirre, 1 behea  
Bidekurutzeta 6, 2  
Fraiskozuri, 5 behea  
Artekale 1, 1. C  
Matxiategi, 18 behea ezkerre  
S. Arrieta 3, 2. B  
☎ 76 27 95  
☎ 76 05 77  
☎ 76 56 88  
☎ 76 01 65  
☎ 76 07 66  
☎ 76 38 54

## ■ FISIOTERAPEUTAK:

- ARZAK MIREN (REEDUCACION POSTURAL GLOBAL)

Masterreka, 7 4. C  
☎ 76 43 71

## ■ GINEKOLOGOA:

- SERRANO DOKTOREA

Ramon Maria Lili, 2  
☎ 76 59 39

## ■ MASAILARIAK:

- AGIRREZABAL JOSE JABIER
- AZPEITIA IRUNE
- CASANELLAS JABIER
- MARTINEZ LUIS JABIER
- PAYROS AITZIBER

Boni Laskurain 1, 2. A  
Agorrosingo igerilekuak  
Boni Laskurain 5, 2. E  
Masterreka 7, 3. A  
Bidekurutzeta, 46 behea  
☎ 76 15 74  
☎ 76 20 51  
☎ 76 03 78  
☎ 76 51 18  
☎ 76 52 62

## ■ MEDIKUNTZA ESTETIKOA:

- BENITO ISABEL

Bidekurutzeta 46, behea  
☎ 76 52 62

## ■ MEDIKUNTZA OROKORRA:

- ARCINIEGA JULIO
- OXIRONDO KONTSULTATEGIA

Boni Laskurain 3, 1. B  
Boni Laskurain 2, behea  
☎ 76 37 50  
☎ 76 20 50

## ■ PEDAGOGOAK:

- IZETA MARIBI (GABINETE PSIKOPEDAGOGIKOA: LOGOPEDIA, PSIKOMOTRIZITATEA)

Simon Arrieta 3, 2. E  
☎ 76 26 42

## ■ PODOLOGOAK:

- ALTUBE EDURNE
- AZPIAZU ARANTZAZU

Simon Arrieta, 2  
Herri Lagunak, z/g.  
☎ 76 07 84  
☎ 76 41 32

## ■ PSIKIATRA:

- GALLASTEGI PABLO

San Martin Plaza 2, 1. ezkerre  
☎ 76 26 64

## ■ PSIKOLOGOAK:

- PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA (LOGOPEDIA-FONIATRIA, PSIKOLOGIA, PSIKOMOTRIZITATEA)
- URKAREGI PAKITA (PSIKOLOGO KLINIKOA)
- ZUBILLAGA, ZABALA MARISA (PSIKOLOGO KLINIKOA)
- FERNANDEZ J.R.

Ramon Maria Lili, 2  
☎ 76 14 80  
☎ 76 53 13  
☎ 76 30 76  
☎ 76 59 39

## ■ REUMATOLOGIA:

- MORAGUES CARMEN

Ramon Maria Lili, 2  
☎ 76 59 39



# Gida

Elektrikariak  
 Suhiltzaileak  
 Iturginak  
 Aseguruak  
 Sarrailegileak  
 Bidaiak  
 Jatetxeak

Informazioa:  
 ☎ 943-300222

euskaldunon  
**Egunkaria**

Ileapaindegiak  
 Ikuskizunak  
 Argazkilariak  
 Haurtzaindegiak  
 Mekanikariak  
 Dentistak...

KOMERTZIALA

